

## DONOSTIAKO FAROLAK

### *Egunez eder, gabaz argitsu Hirian apain, bidean zaindari*

Farolak kaleak argitzeko beharrezko tramankulu bezala ikusi daitezke. Baina badute beste ikusmirarik.

Gizonak beharrezko diren gauza guztiei beti xarma eta apaindura berezi bat eman ohi die. Eta, askotan, apaindura hori bere nortasunaren karakteristika bihurtu da.

Hori gertatu da farolekin ere. Argien euskarri izatea zen haien helburua. Baina inon falta ezin den apaingarri gertatu dira. Esan daiteke hiri baten edertasun urbanistikoaren garapena bere farolen aberastasun eta edertasunarekin neur daitekeela.

Donostia osoa arakatu eta gero, berrogeitaka farol desberdin aurkitu nituen. Orain, auzo eta urbanizazio berriak direla eta, askoz gehiago daude. Orain artekoak klasikoak diren bezala, gaur egun jartzen direnak gehientsuenak estilo eta tanke-ra modernokoak dira. Baina horiei beste estudio bat eskaini beharko zaie.


Estudio hauetan Donostiako farolak bakarka edo taldeka esan nahi zigutena entzun eta gero, hizkuntza hori paperera itzultzen saiatu naiz. Zalantzarik ez daukat haien mezuak ulergarriak eta miresgarriak direla.

Eta... gainera argia ematen dute.


*Juan Mari Arrizabalaga*




1.- Donostia eta Gipuzkoa Neoklasizismoan elkarturik



2.-Kalitatea, diseinua, itxura, gauzatzea...




3.- Argizko fruituak zerurantz zuzentzen dituen baso distaratsua.




4.- Eta farola zubi bihurtu zen



5.- Apaindura eklektiko bat egiteko aitzikia besterik ez dira farolak




6.- “Etorkizun” argitsua, Donostiako zabalgunearen ikurra




7.- Alferrik da argiari errejak jartzea: koroa bihurtzen ditu







8.- Hiriaren antolamendua, hiru dimentsioetan egina




9.- Hiri baten zutargia, herri baten kandelak






11.- Harlanduek gizonaren otoitza zerurantz luzatzen dute




12.- Kalbarioaren metamorfosisa: desakralizatua eta hedonista



13.- Hiriak bere argia lau haizetara zabaldu nahi du



14.- Argiak, estiloak, koloreak: airosak, xinpleak, serioak...  
bizitza bera bezalakoxeak



15.- Andere dotore baten bitxiak lez.







16.- Zerutik kutxatil bat dario. Bere altxorra: argia.




17.- Gauza eder guztien muina, argia




18.- Argia deseroso dagoenean, antzematen zaio.




19.- Bai ote? Argia burumakur?



20.- Zutabearen edertasunak argia itzali du



21.- Basoaren barrena ez al da iluna?



22.- Zuhaitzak, adarrak, sustraiak, fruituak,...